

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

1901: Espainiako Estatuko lehen gay ezkontza

A CORUÑA (GALIZIA), 1901EKO EKAINAREN 8A. Aita Cortiellak Marcela Gracia eta Elisa Sánchez ezkondu zituen San Jorge elizan. Apaizak Elisa gizona zela uste zuen, gizon jantzian eta Mario Sánchez izenez ezkondu baitzen.

Marcelak eta Elisak A Coruña irakasle Eskolan ikasle zirela ezagutu zuten elkar, eta hasierako laguntasuna maitasun harreman bihurtu zen. Eskandaluaren beldur, Marcelaren gurasoek alaba Madrilerara bidali zuten ikasketak amaitzera. Baina titulua eskuratuta, atzera Galiziarra itzuli zen, A Coruña alboko Calo herrixkan irakasle postua lortu baitzuen. Elisa, berriz, handik oso gertu hasi zen irakasle lanetan, Couson, eta biak berriz bildu ziren.

Ezkontzaren urtean bertan Elisak gizona izateko itxura hartzea erabaki zuen, Mario izena hartu zuen, eta iragan egokia asmatu zion pertsonaiari. Londresen hazi omen zen, aita atea omen zuen, eta horregatik, ezkondu baino egun batzuk lehenago Aita Cortiellak berak bataiatu zuen.

Baina Mariok Elisaren antza handia zuen, eta inguruko zurrumurruak egunkarietara iritsi ziren, ez Galizian soilik. Esaterako, Madrilgo *El suceso ilustrado* egunkariak *Matrimonio sin hombre* (Gizonezkorik gabeko ezkontza) izenburuko artikulua argitaratu zuen uztailaren 14an.



LA VOZ DE GALICIA

Marcela Gracia eta Elisa Sánchez (gizon jantzian) ezkontzaren egunean.

Marcelak eta Elisak lana galdu zuten, eskumikatu egin zituzten, eta biak bilatzeko eta atxilotzeko agindua eman zuten. Guardia Zibilak bizileku zuten Dumbriaraino esetsi zien, baina bikoteak Portugalera ihes egitea lortu zuen. Porton atxilotu, giltzaperatu eta, azkenik, askatu egin zituzten. Urrutirago alde egin zuten orduan, Argentinara. Han galdu zen emazte kideen arrastoa, 1904an.

2008an, Espainian gayen arteko ezkontza legez onartu eta hiru urtera, A Coruña Unibertsitateko katedradun Narciso de Gabriele Estatuako lehen gay ezkontza haren nondik norakoak bildu zituen *Elisa e Marcela. Alén dos homes* (Elisa eta Marcela. Gizonez harago) liburuan. Egunotan eta urtarilaren 31ra bitartean, unibertsitate berean, *Marcela e Elisa* izeneko erakusketa dago ikusgai.

Eta beste galiziar batek, Mariano Rajoy Espainiako gobernuko presidente berriak, duela 110 urte irekitako zirrikitua itxi eta duela sei urte onartutako legea indargabetu dezake aurki.

Baina ez eliza katolikoak ez erregistro zibilak, ez dute sekula A Coruña elizbarrutiko artxiboan gordeta dagoen ezkontza agiri hura baliogabetu, eta, beraz, Marcela eta Elisaren ezkontza balioduna da oraindik.



Arrastoak

Lurrikaren aurkako eraikinak duela 5.000 urte

MICHAEL SWERDLYK



CARAL hiria duela 5.000 urte eraiki zuen zibilizazioak Peruko inguru horretan ohikoak diren lurrikareei egin behar izaten zien aurre. Amerikako hiri zaharrenaren arrastoak duela hamazazpi urte aurkitu zituzten eta orain, 32 piramide aztertu ondoren,

Richter eskalan 7,5 gradura arteko lurrikarak jasatea ahalbidetzen zuten eraikuntza teknikak erabili zituztela baieztatu dute. Lurrikareei aurre egin arren, Caraleko zibilizazioa muturreko aldaketa klimatikoak desagerrarazi zuten. Eremua basamortua da egun.